

Unitate honetan berriak, gertaerak eta biografiak idazteko hainbat jarduera egingo dituzu honako atal hauetan:



### Testuak antolatzen

- › Albisteetan, informazioa garrantziaren arabera ordenatzen da informazio garrantzitsuenetik xehetasunetara, eta hainbat *galdera-gako* egiten ditugu oinarrizko informazio hori eskuratzeko: **zer?, nork?, noiz?, non?, zergatik?, nola?**
- › Halaber, berrien protagonista diren pertsonen, tokien edo ekintzen sarri egiten diegu *erreferentzia*, hariari ondo jarraitzeko: **bikote batek... bikoteak...; haurrak... umeei...**
- › Atal honetan, eginkizun horiek burutzeko hainbat hizkuntza-baliabide landuko dituzu.



### Perpausak josten

- › Gertaerak eta biografiak kontatzean, ekintzak *denboran* kokatzen ditugu: **ikasketak bukatu zituenetik, gaztetatik, 1978az geroztik...**
- › Bestalde, berrietako titulu eta azpitituluetan, informazio *ugaria eman* daiteke esaldi bakar batean: **hondartzan galdutako haurra lagun batzuekin zegoen...**
- › Horrez gain, *beste batzuek diotena* ere azaltzen dugu: **lekukoaren arabera, datuek diotenez, adituen esanetan...**
- › Atal honetan, ekintza horiek adierazteko egitura batzuk jorratuko dituzu.



### Hitzak dantzan

- › Biografiatan, protagonisten bizitzako *ekintzak* kontatzen ditugu: **jaio zen, jardun zuen, aritu zen, ikasi zuen, lortu zuen, zendu zen...**
- › Berrietan, ematen den informazioa oso ziurra ez bada, adierazi egiten dugu *ziurtasun falta* hori: **dirudienez, antza denez, itxuraz, omen...**
- › Batzuetan, zerbaiti edo norbaiti buruzko informazioa emateko, izen baten ondoan beste izen bat jartzen dugu: **Maialen Lujanbio, Euskal Herriko Txapela jantzi duen lehen emakumea...**
- › Beste batzuetan, gertaturikoa kontatzeko hainbat *esamolde* erabil ditzakegu: **blai eginda, amaitu ezinik, bete-betean...**
- › Atal honetan, zeregin horiek azaltzeko forma batzuk ikusiko dituzu.



### Begia zorrotz

- › Zuzentasuna helburu duen atal honetan, berriak, gertaerak eta biografiak oinarri hartuta, *deklinabidea, aditza eta ortografia* landuko dituzu.

➔ INFORMAZIOAREN GARRANTZIA ARDATZ

Berrien egituran, informaziorik garrantzitsuenak hasieran ematen da, hau da, lehenengo lerroak irakurrita, oinarritzko informazioa eskuratzen da.

- 1** Irakurri jarraian daukazun berria, eta erantzun oinarritzko informazioa lortzen lagunduko dizuten *sei galderei*.

(1) GIZARTEA - GAIXOTASUN ARRAROAK

(2) “Eguzki-ume”en kasu bitxia

2016/05/10

- (3) Pakistango bi anaiek bizimodu arrunta daramate egun argiz, baina eguzkia ezkutatzean, mugitu ezinik gelditzen dira.

Eguzki-loreen antzera, eguzki-izpien “babespean” bizimodu arrunta egiten dute Shoaid Ahmed eta Abdul Rasheed anaiek (9 eta 13 urte, hurrenez hurren); eguzkia ezkutatzean, ordea,

- (4) med eta Abdul Rasheed anaiak (5 eta 15 urte, hurrenez hurren), eguzkia ezkutatzean, ordea, gorputza mugitu ezinik geratzen dira. Maiatzean eramán zituzten bi anaiak ospitalera, eta han dituzte, hainbat proba egiten. Main Kundin herrian bizi dira, Pakistan hegoaldean, eta han “eguzki-ume” ezizenez ezagutzen dituzte.

- (5) “Gauzez, ezin dute ez jan, ez edan, ezta mugitu ere. Espero dut laster gauzez ere ibiltzeko modua izatea”, esan dio Mohamed Hashim bi umeen aitak kasua ezagutzera joandako EFE albiste-agentziako kazetariari.

Hashimek sei seme-alaba ditu: hiru gaitzak jota daude (hirugarren anaiak urtebete baino ez du);

- (6) beste seme batek eta bi alabek ez dute, ordea, gaixotasunik. Bikotearen beste bi seme jaio eta handik gutxira hil ziren.

Abdul seme zaharrenak bi urte zituenean ospitalera eraman zuen aitak, baina han ez zioten gaitzari osabiderik topatu. Beste erietxe batera eramateko diru nahikorik ez zuela eta, horretan utzi zuen gizonak auzia.

- (8) Kasuak hedabideetan izandako harrabotsa Pakistango Zientzia Medikuen Institutuko medikuen belarrietara heldu zen, eta bi umeen kasua ikertzeko prest agertu ziren. Guztira, 27 profesional ari dira Shoaid Ahmed eta Abdul Rasheed anaien kasua ikertzen. Nazioarteko 13 osasun-erakunderi bidali dizkiete egindako probak, laguntza eske. Lehen zantzuen arabera, **gaixotasun genetikoa da, gizonezkoei bakarrik eragiten diena, eta gurasoen odolkidetasunarekin zerikusia duena** (lehengusu-lehengusinak dira).

- (9) Euren semeen gaueko bizi-kalitatea hobetzea nahiko luke Hashim aitak, baina beldur da tratamendu egokia jasotzeko atzerrira eraman beharko ote dituzten. “Ez dugu dirurik. Beste herrialde batera eraman behar badituzte, ezingo gara haiekin joan”, aitortu du.

((www.eitb.eus-ek euskaratua eta moldatua, EFE-ren albiste batean oinarriturik) eitb.eus-etik hartua eta moldatua)





1. Zer gaixotasun arraro aipatzen da izenburuan?

"Eguzki-ume" en kasu bitxia aipatzen da.

2. Nork sufritzen dute gaixotasun hori?

3. Zergatik ezagutzen dituzte "eguzki-ume" ezizenez?

4. Noiz eraman dituzte erietxera?

5. Zertara eraman dituzte haurrak erietxera?

6. Non bizi dira haur horiek?

2 Zenbatgarren punturaino irakurri behar izan duzu berria informazio hori lortzeko?

Puntu horretatik aurrera, hasierako lerroetan ematen den informazioa gehiago zabaltzen da, berriaren inguruko xehetasunak azalduz.

3 Zein paragrafotan ematen dira xehetasun hauek? Irakurri berria eta lotu paragrafoak eta xehetasunak.

- Aitak semeen bizi-kalitatean zer hobekuntza nahiko lukeen adierazten da, baita bere beldurra zein den ere.
- Seme zaharrenari gaitza noiz antzeman zioten azaltzen da.
- Bi mutikoen aitak umeek gauez zer ezin duten egin azaltzen du.
- Pakistango zientzialariek kasu bitxi horren berri nola jakin zuten azaltzen da, eta ikerketan zenbat profesional eta nola ari diren lanean azaltzen da. Horrez gain, gaixotasunaren lehen zantzuak aipatzen dira.
- Zenbat anai-arreba diren eta zenbat dauden gaixorik azaltzen da.

a. 9 b. ... c. ... d. ... e. ...

4 Eskuinean, irakurri duzun berriaren *egitura* daukazu. Lotu atal bakoitzean zer azaltzen den, dagokion hizkia atal bakoitzaren ondoan ipiniz. Ondoren, lotu atalak eta berriaren paragrafoak, bakoitzari dago(z)kion zenbakia(k) azpian idatziz.

- Irakurlea erakartzeko helburua duen oinarrizko informazio laburra ematen da.
- Informazioaren testuingurua ematen da, eta, horretarako, hitz bat edo esaldi labur bat erabiltzen da.
- Berria zertan dantzan adierazten da, eta oinarrizko sei galderei, edo sei horietatik gehienei erantzuten zaie, normalean: zer?, nork?, noiz?, non?, nola? eta zergatik?.
- Berriari buruzko xehetasunak ematen dira.
- Berriaren inguruko beste informazio bat ematen da, eta irakurlea gehiago irakurtzera bultzatzen du. Perpaus horren luzera beti ez da berdina, baina ez da oso luzea izaten.

#### Berriaren egitura

Goiburua: b

1.

Titulua: ...

... g... g... g... g... g...

Azpitulua: ...

... g... g... g... g... g...

Sarrera: ...

... g... g... g... g... g...

Berriaren garapena: ...

... g... g... g... g... g...

## → BERRIETAN ERREFERENTZIAK NOLA EGIN

Albisteen haria ez galtzeko protagonista diren pertsonen, tokien edo ekintzen *erreferentzia* egitea komeni da.

- 5 Berri bitxi honetan, emakume bati gertatutakoa kontatzen da. Nola aipatu du kazetariak emakumea lehenengo aldiz? Nola egin dio erreferentzia ondoren? Erreparatu markatuta dauden hitzei.

### BI URTEKO KARTZELA-ZIGORRA, ALFERRA IZATEAGATIK

Epaileak bi urteko kartzela zigorra jarri dio 45 urteko **emakumezko bati**, bederatzi urtetan sei egun bakarrik lan egiteagatik.

**Emakumea** 2011ko azaroan atxilotu zuten erakunde publikoei iruzur egitea eta informazio faltsuz betetako dokumentazio publikoa erabiltzeagatik, Ansa Italiako albiste agentziaren arabera.

Antza denez, **zigortu duten langileak** epe luzeko bajak hartu ditu, bata bestearen atzetik, gaixo zegoela argudiatuta batzuetan, eta bestee-tan, haurdunaldi bajak zirela esanda. Medikuen arabera, **andrea** ez da inoiz haurdun egon.

((www.eitb.eus-ek euskaratua eta moldatua, EFE-ren albiste batean oinarriturik)  
eitb.eus-etik hartua eta moldatua)

- 6 Orain, irakurri esaldiak eta azpimarratu lehenengo aldiz aipatzeko eta ondoren *erreferentziak* egiteko markatuta dauden bi baliabideen artean erabili duena.

1. Lehenengo aldiz zenbatzailea erabiliz/erakuslea erabiliz aipatu du emakumea.
2. Emakumeari lehenengo aldiz erreferentzia egiteko, **zenbatzailea/artikulua** erabili du.
3. Bigarren aldiz erreferentzia egiteko, **erakuslea/hitz multzo bat** erabili du.
4. Azken erreferentzia egin dionean, **emakume hitzaren sinonimoa/erakuslea** erabili du.

### GIZON BATEK ...GIZONAK...

Albisteetan aipatzen diren elementuei (pertsonak, lekuak, gauzak...) erreferentzia egiteko, besteak beste, baliabide hauek erabil ditzakegu:

#### Ordezkapen lexikala

- › Sinonimoak edo baliokideak: errepikapenak saihesteko erabiltzen dira.
  - **Haurrak** eskolan sartu ziren. **Ume** guztiak eseri zirenean...
- › Hitz multzoak: hitz bat ez errepikatzeko, hitz-multzo bat erabiltzea. Askotan, idazleak eta irakurleak konpartitzen duten jakintzan oinarritzen da.
  - Pizza – Italiarrek hainbeste estimatzen duten janaria.

#### Determinatzaileak

- › Zenbatzaileak: elementuren bat lehenengo aldiz aipatzeko erabiltzen dira.
  - **Bi** txakur berde jaio dira Valladoliden.
  - Hartz zuri **batek** 29 urte bete ditu.
- › Artikuluak zein bigarren edo hirugarren graduako erakusleak: elementu bat bigarren aldiz aipatzeko erabiltzen dira.
  - Bi txakur berde jaio dira Valladoliden. Albaitariak uste dute biliberdina pigmentuarekin kutsatu zirela txakurkumeak.
  - Hartz zuri batek 29 urte bete ditu. Hartz **hori** Buenos Aireseko zoologikoan bizi da.

- 7 Beste berri honetan, ikasle batzuk eta hanburgesa bat dira albistearen protagonistak. Irakurri berria, azpimarratu nola aipatu diren ikasleak eta hanburgesa lehenengo aldiz eta nola egin zaien erreferentzia ondoren, eta erantzun galderei aukera egokia markatuz.

### ESPAZIORA JOAN-ETORRIA EGIN DU HANBURGESA BATEK

Harvard unibertsitateko bost ikaslek hanburgesa bat espaziora bidali eta lurrera oso-osorik bueltatzea lortu dute.

Hanburgesa espazio-ontzi berezi batean sartu zuten, eta helioz betetako puxika, kamera bat eta GPS bat izan zituen bidaiade.

Estatubatuarren jaki preziatua 30.000 metroko altuerara iritsi zen. Une horretan, puxika lehertu egin zen eta lurrera bueltan ekarriko zuen bidaia hasi zuen.

Azkenean, espaziora bota zuten lekutik 200 kilometrora lurreratu zen, atera eta hiru egunera.

Harvardeko ikasleek James Bonden *Skyfall* azken filmaren omenez egin zuten esperimentua.

[www.blogseitb.net-etik](http://www.blogseitb.net-etik) hartua eta moldatua



1. Nola aipatu ditu kazetariak ikasleak lehenengo aldiz?
  - a. Zenbatzaile zehaztua erabiliz
  - b. Erakuslea erabiliz
2. Nola egin die erreferentzia ondoren?
  - a. Artikulua erabiliz
  - b. Erakuslea erabiliz
3. Nola aipatu du hanburgesa lehenengo aldiz?
  - a. Artikulua erabiliz
  - b. Zenbatzaile zehaztua erabiliz
4. Zein baliabide erabili du ondoren hanburgesari erreferentzia egiteko?
  - a. Lehenengo aldian artikulua erabili du eta bigarrenean, sinonimoa.
  - b. Lehenengo aldian artikulua erabili du eta bigarrenean, hitz multzoa.



Unitate honetan berriak, gertaerak eta biografiak idazteko hainbat jarduera egingo dituzu honako atal hauetan:



### Testuak antolatzen

- › Albisteetan, informazioa garrantziaren arabera ordenatzen da informazio garrantzitsuenetik xehetasunetara, eta hainbat *galdera-gako* egiten ditugu oinarrizko informazio hori eskuratzeko: **zer?, nork?, noiz?, non?, zergatik?, nola?**
- › Halaber, berrien protagonista diren pertsonen, tokien edo ekintzen sarri egiten diegu *erreferentzia*, hariari ondo jarraitzeko: **bikote batek... bikoteak...; haurrak... umeei...**
- › Atal honetan, eginkizun horiek burutzeko hainbat hizkuntza-baliabide landuko dituzu.



### Perpausak josten

- › Gertaerak eta biografiak kontatzean, ekintzak *denboran* kokatzen ditugu: **ikasketak bukatu zituenetik, gaztetatik, 1978az geroztik...**
- › Bestalde, berrietako titulu eta azpitituluetan, informazio *ugar*i eman daiteke esaldi bakar batean: **hondartzan galdutako haurra lagun batzuekin zegoen...**
- › Horrez gain, *beste batzuek diotena* ere azaltzen dugu: **lekukoaren arabera, datuek diotenez, adituen esanetan...**
- › Atal honetan, ekintza horiek adierazteko egitura batzuk jorratuko dituzu.



### Hitzak dantzan

- › Biografiatan, protagonisten bizitzako *ekintzak* kontatzen ditugu: **jaio zen, jardun zuen, aritu zen, ikasi zuen, lortu zuen, zendu zen...**
- › Berrietan, ematen den informazioa oso ziurra ez bada, adierazi egiten dugu *ziurtasun falta* hori: **dirudienez, antza denez, itxuraz, omen...**
- › Batzuetan, zerbaiti edo norbaiti buruzko informazioa emateko, izen baten ondoan beste izen bat jartzen dugu: **Maialen Lujanbio, Euskal Herriko Txapela jantzi duen lehen emakumea...**
- › Beste batzuetan, gertaturikoa kontatzeko hainbat *esamolde* erabil ditzakegu: **blai eginda, amaitu ezinik, bete-betean...**
- › Atal honetan, zeregin horiek azaltzeko forma batzuk ikusiko dituzu.



### Begia zorrotz

- › Zuzentasuna helburu duen atal honetan, berriak, gertaerak eta biografiak oinarri hartuta, *deklinabidea, aditza eta ortografia* landuko dituzu.

## INFORMAZIOAREN GARRANTZIA ARDATZ

Berrien egituraren, informazioaren garrantzitsuenaren hasieran ematen da, hau da, lehenengo erroak irakurrita, oinarritzko informazioa eskuratzen da.

- 1 Irakurri jarraian daukazu berria, eta erantzun oinarritzko informazioa lortzen lagunduko dizuten *sei galderei*.

(1) GIZARTEA - GAIXOTASUN ARRAROA

(2) “Eguzki-ume”en kasu bitxia

2016/05/10

- (3) Pakistango bi anaien bizimodu arrunta daramate egun argiz, baina eguzkia ezkutatzeko, mugitu ezinik gelditzen dira.

Eguzki-lorearen antzera, eguzki-izpien “babespean” bizimodu arrunta egiten dute Shoaib Ahmed eta Abdul Rasheed anaien (9 eta 13 urte, hurrenez hurren); eguzkia ezkutatzeko, ordea, gorputza mugitu ezinik geratzen dira. Maiatzaren eraman zituzten bi anaiak ospitalera, eta han dituzte, hainbat proba egiten. Main Kundin herrian bizi dira, Pakistan hegoaldean, eta han “eguzki-ume” ezizenez ezagutzen dituzte.

- (5) “Gauetz, ezin dute ez jan, ez edan, ezta mugitu ere. Espero dut laster gauetz ere ibiltzeko modua izatea”, esan dio Mohamed Hashim bi umeen aitak kasua ezagutzera joandako EFE albiste-agentziako kazetariari.

- (6) Hashimek sei seme-alaba ditu: hiru gaitzak jota daude (hirugarren anaiak urtebete baino ez du); beste seme batek eta bi alabek ez dute, ordea, gaixotasunik. Bikotearen beste bi seme jaio eta handik gutxira hil ziren.

- (7) Abdul seme zaharrenak bi urte zituenean ospitalera eraman zuen aitak, baina han ez zioten gaitzari osabiderik topatu. Beste erietxe batera eramateko diru nahikorik ez zuela eta, horretan utzi zuen gizonak auzia.

- (8) Kasuak hedabideetan izandako harrabotsa Pakistango Zientzia Medikuen Institutuko medikuen belarrietara heldu zen, eta bi umeen kasua ikertzeko prest agertu ziren. Guztira, 27 profesional ari dira Shoaib Ahmed eta Abdul Rasheed anaien kasua ikertzen. Nazioarteko 13 osasun-erakunderi bidali dizkiete egindako probak, laguntza eske. Lehen zantzuaren arabera, **gaixotasun genetikoa da, gizonezkoei bakarrik eragiten diena, eta gurasoen odolkidetasunarekin zerikusia duena** (lehengusu-lehengusinak dira).

- (9) Euren semeen gaueko bizi-kalitatea hobetzea nahiko luke Hashim aitak, baina beldur da tratamendu egokia jasotzeko atzerrira eraman beharko ote dituzten. “Ez dugu dirurik. Beste herrialde batera eraman behar badituzte, ezingo gara haiekin joan”, aitortu du.

((www.eitb.eus-ek euskaratua eta moldatua, EFE-ren albiste batean oinarriturik) eitb.eus-etik hartua eta moldatua)





1. Zer gaixotasun arraro aipatzen da izenburuan?

"Eguzki-ume" en kasu bitxia aipatzen da.

2. Nork sufritzen dute gaixotasun hori?

3. Zergatik ezagutzen dituzte "eguzki-ume" ezizenez?

4. Noiz eraman dituzte erietxera?

5. Zertara eraman dituzte haurrak erietxera?

6. Non bizi dira haur horiek?

2 Zenbatgarren punturaino irakurri behar izan duzu berria informazio hori lortzeko?

Puntu horretatik aurrera, hasierako lerroetan ematen den informazioa gehiago zabaltzen da, berriaren inguruko xehetasunak azalduz.

3 Zein paragrafotan ematen dira xehetasun hauek? Irakurri berria eta lotu paragrafoak eta xehetasunak.

- Aitak semeen bizi-kalitatean zer hobekuntza nahiko lukeen adierazten da, baita bere beldurra zein den ere.
- Seme zaharrenari gaitza noiz antzeman zioten azaltzen da.
- Bi mutikoen aitak umeek gauez zer ezin duten egin azaltzen du.
- Pakistango zientzialariek kasu bitxi horren berri nola jakin zuten azaltzen da, eta ikerketan zenbat profesional eta nola ari diren lanean azaltzen da. Horrez gain, gaixotasunaren lehen zantzuak aipatzen dira.
- Zenbat anai-arreba diren eta zenbat dauden gaixorik azaltzen da.

a. 9 b. ... c. ... d. ... e. ...

4 Eskuinean, irakurri duzun berriaren *egitura* daukazu. Lotu atal bakoitzean zer azaltzen den, dagokion hizkia atal bakoitzaren ondoan ipiniz. Ondoren, lotu atalak eta berriaren paragrafoak, bakoitzari dago(z)kion zenbakia(k) azpian idatziz.

- Irakurlea erakartzeko helburua duen oinarrizko informazio laburra ematen da.
- Informazioaren testuingurua ematen da, eta, horretarako, hitz bat edo esaldi labur bat erabiltzen da.
- Berria zertan dantzan adierazten da, eta oinarrizko sei galderei, edo sei horietatik gehienei erantzuten zaie, normalean: zer?, nork?, noiz?, non?, nola? eta zergatik?.
- Berriari buruzko xehetasunak ematen dira.
- Berriaren inguruko beste informazio bat ematen da, eta irakurlea gehiago irakurtzera bultzatzen du. Perpaus horren luzera beti ez da berdina, baina ez da oso luzea izaten.

#### Berriaren egitura

Goiburua: b

1.

Titulua: ...

... g... g... g... g... g...

Azpitulua: ...

... g... g... g... g... g...

Sarrera: ...

... g... g... g... g... g...

Berriaren garapena: ...

... g... g... g... g... g...



## → BERRIETAN ERREFERENTZIAK NOLA EGIN

Albisteen haria ez galtzeko protagonista diren pertsonen, tokien edo ekintzen *erreferentzia* egitea komeni da.

- 5 Berri bitxi honetan, emakume bati gertatutakoa kontatzen da. Nola aipatu du kazetariak emakumea lehenengo aldiz? Nola egin dio erreferentzia ondoren? Erreparatu markatuta dauden hitzei.

### BI URTEKO KARTZELA-ZIGORRA, ALFERRA IZATEAGATIK

Epaileak bi urteko kartzela zigorra jarri dio 45 urteko **emakumezko bati**, bederatzi urtetan sei egun bakarrik lan egiteagatik.

**Emakumea** 2011ko azaroan atxilotu zuten erakunde publikoei iruzur egitea eta informazio faltsuz betetako dokumentazio publikoa erabiltzeagatik, Ansa Italiako albiste agentziaren arabera.

Antza denez, **zigortu duten langileak** epe luzeko bajak hartu ditu, bata bestearen atzetik, gaixo zegoela argudiatuta batzuetan, eta bestee-tan, haurdunaldi bajak zirela esanda. Medikuen arabera, **andrea** ez da inoiz haurdun egon.

((www.eitb.eus-ek euskaratua eta moldatua, EFE-ren albiste batean oinarriturik)  
eitb.eus-etik hartua eta moldatua)

- 6 Orain, irakurri esaldiak eta azpimarratu lehenengo aldiz aipatzeko eta ondoren *erreferentziak* egiteko markatuta dauden bi baliabideen artean erabili duena.

1. Lehenengo aldiz zenbatzailea erabiliz/erakuslea erabiliz aipatu du emakumea.
2. Emakumeari lehenengo aldiz erreferentzia egiteko, **zenbatzailea/artikulua** erabili du.
3. Bigarren aldiz erreferentzia egiteko, **erakuslea/hitz multzo bat** erabili du.
4. Azken erreferentzia egin dionean, **emakume hitzaren sinonimoa/erakuslea** erabili du.

### GIZON BATEK ...GIZONAK...

Albisteetan aipatzen diren elementuei (pertsonak, lekuak, gauzak...) erreferentzia egiteko, besteak beste, baliabide hauek erabil ditzakegu:

#### Ordezkapen lexikala

- › Sinonimoak edo baliokideak: errepikapenak saihesteko erabiltzen dira.
  - **Haurrak** eskolan sartu ziren. **Ume** guztiak eseri zirenean...
- › Hitz multzoak: hitz bat ez errepikatzeko, hitz-multzo bat erabiltzea. Askotan, idazleak eta irakurleak konpartitzen duten jakintzan oinarritzen da.
  - Pizza – Italiarrek hainbeste estimatzen duten janaria.

#### Determinatzaileak

- › Zenbatzaileak: elementuren bat lehenengo aldiz aipatzeko erabiltzen dira.
  - **Bi** txakur berde jaio dira Valladoliden.
  - Hartz zuri **batek** 29 urte bete ditu.
- › Artikuluak zein bigarren edo hirugarren graduako erakusleak: elementu bat bigarren aldiz aipatzeko erabiltzen dira.
  - Bi txakur berde jaio dira Valladoliden. Albaitariak uste dute biliberdina pigmentuarekin kutsatu zirela txakurkumeak.
  - Hartz zuri batek 29 urte bete ditu. Hartz **hori** Buenos Aireseko zoologikoan bizi da.